

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Hona hemen Nafarroako Gobernuak aste honetarako - abuztuak 27tik irailak 2ra - prestatu duen kultur eskaintza, kontzertuak, tailerrak, erakusketak eta leku paregabeak ezagutzeko proposamenez josita

Astelehena, 2018.eko abuztuak 27

Hasteko, [Kultur Egitaraua](#) aurrera darrai hiru musika proposamen erakargarriekin: ostegunean Mendigorrian Tximeleta taldea arituko da; Artajonan eta Ostiralez Suakai on the Rocks-en txanda izango da eta bukatzeko, larunbatean eta Altsasun, Smoking Stones taldeak piztuko du festa abestiz abesti. Aurretik, zaldi ibilaldi bat eskainiko da Altsasun bertan Errotain Zalditegiaren eskutik.



Nafarroako Ganbera Abesbatzak kontzertu bat eskainiko du larunbatean, Lizarrako aintzinako Musikaren astearen barruan.

Musikarekin jarraituz, badatoz Nafarroako Kulturaren Zuzendaritza Nagusiak prestatzen dituen bi jaialdi garrantzitsu eta eder: Organo Musika Nafarroan eta Lizarrako Aintzinako Musikaren 49. Astea. Lehen proposamenak Loreto Fernández Imaz-en ikuskizuna gozatzeko aukera zabalduko du ostegun honetan Larragan. Halaber, Lizarrako jaialdiak aukera bikoitza dakar: larunbatean Nafarroako Ganbera Abesbatza arituko da Puy-ko Andre Mariaren Basilikan eta igandean Barroco Tout taldearen txanda izango da Santa Clara-ko elizan.

Jaialdi hauetatik haratago badago non aukeratu, esaterako, Landarte Egitarauak bi kontzertu eskaintzen ditu. Artajonan "Harrien ohiartzuna" kontzertua eskainiko da larunbatean eta Eugin "Tradizio ibiltaria" proposamena zabalduko da igandean.

Formakuntzari dagokionez Huarte Zentroak eskaintza hirukoitza dakar aste honetarako "Arte Gaztea eta Sorkuntza" programarekin, "Birjaio" proposamenarekin eta "GRRRR!" ilustrazio tailerrarekin. Lizarrako Karlismoaren Museoan berriz, historian oinarritutako Scape Room baten galderak askatzeko aukera zabalik dirau, "Scape Room: Toison-aren lapurreta".

Erakusketei dagokionez, hauek dira zabalik dauden proposamenak: Oteizan Museoan, "Macla, mamua, bismuto, vicario" proposamena zabalik dirau. Era berean, Imanol Marrodanek Alzuza Zentroan sortu zuen lana, "Arma isilak gerra lasaietarako", irekirik darrai. Bukatzeko, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian bi erakusketa daude ikusgai "Pablo Sarasate-Alberto Huarte: adiskidetasun baten testigantzak" eta "Jose Velasco Hernándezen argazkiak (1897-1974)"

[Sakatu link](#) programazioren xehetasun guztiak ikusi nahi izanez gero.



Organorako Musika zikloan Loreto Fernández Imaz arituko da Nafarroan.